



Alfonso DI VINCENZO | AFP



IKUSMIRA

MEDITERRANEOAK AURTEN 3.419 LAGUNEN AMETSAK IRENTSI DITU

UNHCR Iheslarienezako Nazio Batuen Goi Mandatariak aditzera emandako datuen arabera, aurtan 3.419 etor-kin hil dira Mediterraneo gurutzatu nahian. Mundu osoan 348.000 lagunek jarri dute euren bizia arriskuan itsaso edo ozeanoak zeharkatzeko saiakeran. Nazioar-teko komunitateak huts egin duela ohartarazi du Anto-

nio Guterresek, UNHCRko zuzendariak. «Gerratik eta pobreziatik ihes egiten duten pertsonen asiloa eta babesa eman beharrean, sarrera debekatu nahi diete gobernu askok. Hutsegite larria da hori, batez ere, gatazka armatuek eragindako errefuxiatuen kopuruak marka guztiak hautsi dituen garaiotan», salatu du Guterresek. Asteartean, 408 siriarrak erreskatatu zituzten Mediterraneo itsasoan Siziliako kostaldera iritsi nahian ari zirela. Horietatik 61 haurrak ziren eta 54 emakumeak, guzti-guztiak Siriakoak. Sei egun zeramatzaten nora ezean eta, dagoneko, deshidratazio sintomak zituzten. Beraiena da «pobreziaaren turismoaren» aurpegi latzena. A. Lertxundi